Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

geu ELKARTEA

# VITORIA-GASTEIZKO UDALAREN ETA GEU ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

# CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ Y LA ASOCIACIÓN GEU

## BILDURIK

Batetik, Iñaki Prusilla Muñoz, VITORIA-GASTEIZKO UDALEKO Euskara Zerbitzuaren zinegotzi-ordezkaria den aldetik,

Eta bestetik, Irati Iciar Madinabeitia, GEU elkartearen izenean eta hura ordezkatuz (IFZ G01125392).

Bi aldeek elkarri hitzarmen hau izenpetzeko bakoitzak duen gaitasuna elkarri onartzen diote eta honako hau

## REUNIDOS

De una parte, Iñaki Prusilla Muñoz, en su calidad de Concejal-Delegado del Servicio de Euskera del AYUNTAMIENTO de VITORIA-GASTEIZ,

Y de la otra, Irati Iciar Madinabeitia, en nombre y representación de la asociación GEU, (NIF G01125392)

Ambas partes se reconocen con capacidad suficiente para suscribir el presente convenio, y

## ADIERAZTEN DUTE

Indarrean dagoen udal ordenantzaren arabera, gizarte bizitzako medio guztietan sustatuko du Udalak euskararen erabilera, baita kultur ekitaldietan, kirol saioetan, merkataritza hartu-emanetan eta bestetan ere.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren baitan, hainbat helburu eta ildo estrategikoren artean, berebiziko garrantzia du euskararen gizarte erabilera sustatzeko ahaleginak. Aisialdiari garrantzia handia aitortzen zaio, baita euskara ikasten ari diren herritarrak euskararen mundura erakartzeko eta euskara erabiltzeko erraztasunak emateko beharrari ere.

GEU elkartea 1992. urtean jaio zen, Gasteizen euskararen erabilera bultzatzeko eta euskal hiztunen komunitatea trinkotzeko. Orduz geroztik, erreferente bilakatu da, Gasteizko euskaldunentzat.

GEU elkartearen egitasmoek, oro har, euskarazko harreman-sareak ehuntzea eta euskararen gizarte-erabilera dinamizatzea dute helburu. Helburu horiek bat datoz Gasteizko Udalak indarrean duen Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren xedearekin eta lan-ildoekin.

Bidezkoa da, beraz, alde biek elkarlanean jardutea,

## DECLARAN

Que según la ordenanza municipal vigente el Ayuntamiento se compromete a promocionar el uso del euskera en todos ámbitos de la vida social, incluidos los ámbitos de actividades culturales, deportes, comercio y demás.

El Plan General de Promoción del Uso del Euskera entre sus objetivos y líneas de trabajo prioritarias, concede especial importancia al impulso del uso social de la lengua, especialmente en el ámbito del ocio, y tiene igualmente en cuenta la necesidad de acercar al mundo del euskera y facilitar el uso de la lengua a las personas que lo estudian en los euskaltegis o centros educativos.

La asociación se creó en 1992, con vocación de reforzar el uso del euskara en Gasteiz e impulsar la compactación de la comunidad lingüística. Es hoy en día un referente importante para las personas euskaldunes de la ciudad.

Los proyectos que desarrolla la Asociación GEU tienen por objeto trabajar en la creación de redes relacionales y en la dinamización del uso social del euskara. Son objetivos coincidentes con el objeto y las líneas de trabajo del Plan de Acción para la Promoción del Uso del Euskara vigente en el Ayuntamiento.

Es, por lo tanto, adecuada la colaboración entre

beren helburuak hobeto betetze aldera.

ambas partes, para cumplir sus respectivos objetivos

Hitzarmena Tokiko Gobernu Batzarrak onartu du 2019ko martxoaren 22ko bilkuran.

El presente convenio ha sido aprobado en sesión ordinaria celebrada por la Junta de Gobierno Local el día 22 de marzo de 2019.

Adierazitako guztia aintzat hartuta bi alderdiek hitzarmen hau izenpetzea erabakitzen dute, ondoko hitzarkin hauen arabera:

En vista de lo expuesto anteriormente, ambas partes deciden suscribir el presente convenio, que se regula en base a las siguientes cláusulas

## HITZARKINAK

## CLAUSULAS

**Lehena.- Xedea**

Hitzarmen honen helburua da Gasteizko Udalaren eta GEU Elkartearen arteko lankidetza arautzea honako egitasmo eta eginkizun hauen inguruan:

- Mintzalaguna
- Igandeak jai eta familia-aisialdirako jarduerak.
- Gasteizen Euskaraldia ekimena koordinatzea.

**Primera.- Objeto**

El objeto de este convenio es establecer los términos de la colaboración entre el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y la Asociación GEU, para el desarrollo de los siguientes proyectos y tareas:

- Programa Mintzalaguna
- Programa Igandeak jai y actividades de ocio en familia.
- Coordinar en Vitoria-Gasteiz la actividad Euskaraldia.

**Bigarrena.- Helburuak**

Egitasmo horien bidez, helburua da euskararen gizarte erabilera indartzea, Gasteizko Udalak arlo horietan dituen helburuekin bat eginik.

**Segunda.- Objetivos**

El desarrollo de los citados proyectos tiene por objetivo la promoción del uso social del euskara, en consonancia con los objetivos perseguidos por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

**Hirugarrena.- GEU GASTEIZ elkartearen eginkizunak.**

GEU elkarteak lehen puntuan zehaztu diren egitasmoak kudeatzeko ardura hartuko du bere gain, hitzarmen honetako eranskinean ezarritako baldintzekin bat etorriz.

Hitzarmen honen xede diren egitasmoak zabaltzeko egiten diren jardueretan, Gasteizko Udala laguntzaile gisa agertu beharko da, eta horretarako, Diru Laguntzen Udal Ordenantzak agintzen duena betez, udalaren logotipoa azaldu beharko da euskarri horietan.

Proiektu horietan Gasteizko Udala eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila ari dira lankidetzan. Hortaz, Kultura Sailaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskainitako babesa ere adierazi behar da, horretarako Eusko Jaurlaritzaren logotipo normalizatua erabiliz.

**Tercera.- Tareas asumidas por la asociación GEU**

GEU asume la responsabilidad de gestionar los proyectos indicados en la cláusula primera, en los términos establecidos en el anexo al presente convenio.

En la realización de estos trabajos se explicitará que se trata de proyectos en los que el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz colabora, incluyéndose de acuerdo con la ordenanza municipal de subvenciones, el logotipo municipal en aquellos soportes que se utilicen para la difusión de las actividades objeto del convenio.

En estos proyectos colaboran el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco. Se deberá hacer expresa esta colaboración, usando también el logotipo normalizado del Gobierno Vasco.

2019ko abenduaren 31a baino lehen hitzarmenaren helburu diren egitasmoen behin-behineko memoria aurkeztu beharko du elkarteak. Bertan egitasmoak ebaluatu, hobekuntzak jaso eta -hala badagokio- hitzarmena berritzeko proposamena egingo du.

Con anterioridad al 31 de diciembre de 2019 deberá hacer entrega de una memoria provisional. En dicha memoria se evaluarán los proyectos, se propondrán áreas de mejora y si se considera oportuno se podrá proponer la renovación del convenio.

**Laugarrena.- Hitzarmenaren diru-kopurua eta ordaintzeko modua**

Gasteizko Udalak 77.175 euroko diru-laguntza emango dio GEU elkarteari, honako programa hauek gauzatzeko:

- Mintzalaguna
- Igandeak jai eta familia-aisialdirako jarduerak.
- Gasteizen Euskaraldia ekimena koordinatzea.

Hitzarmena sinatutakoan, GEU elkarteak urteko kudeaketa plana aurkeztuko dio Euskara Zerbitzuari. Bertan azalduko du zenbat diru bideratuko dion proiektu bakoitzari.

Edozein kasutan ere, diruz lagundutako kopurua ez da izango hitzarmenean jaso diren egitasmoek orotara izango duten gastu osoaren %75 baino handiagoa.

Kopuru hori hitzarmena sinatutakoan ordainduko da, jarduerak aurrera eramateko ezinbesteko finantzazioa dela jotzen baita.

Diru-laguntza ezin izango da ordaindu, onuradunak Ogasunarekin edo Segurantza Sozialarekin zorrik baldin badu; edo ebazpen baten bidez diru-kopururen bat itzultzeko eskatu baldin bazaio eta hala egin ez badu.

Era berean, ezin izango da diru-laguntza ordaindu onuradunak Udalak emandako bestelako diru-laguntzarik zuritu gabe baldin badu, edo emandako dirua itzultzeko eskaera jaso ondoren, dirua itzuli ez badu.

**Cuarta.- Cuantía del convenio y abono de la misma.**

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz entregará a la asociación GEU la cantidad de 77.175 euros en concepto de subvención, correspondiente a los siguientes programas:

- Programa Mintzalaguna
- Programa Igandeak jai y actividades de ocio en familia.
- Coordinar en Vitoria-Gasteiz la actividad Euskaraldia.

Tras la firma del convenio, la asociación GEU presentará al Servicio de Euskera el plan de gestión de dichos proyectos, donde concretará la cantidad a destinar a cada uno.

En cualquier caso la cantidad subvencionada no será superior al 75% del presupuesto total de los proyectos bajo convenio.

Dicha cantidad se abonará tras la firma de este convenio, ya que se estima que es una financiación necesaria para poder llevar a cabo las acciones inherentes al mismo.

No podrá realizarse el pago de la subvención en tanto el beneficiario no se halle al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social o sea deudor por resolución de procedencia de reintegro.

Asimismo, el abono de la subvención no se llevará a cabo si el beneficiario tuviese pendiente de justificación alguna otra subvención concedida por este Ayuntamiento o si no hubiese reintegrado alguna subvención anterior cuando así se haya requerido.

**Bosgarrena.- Beste diru-laguntzekin bateragarria izatea.**

Emandako diru-laguntza bateragarria da jarduerak gauzatzeko jaso daitezkeen bestelako laguntzekin, laguntza horiek Udalaren beste sailek emandakoak ez badira. Dena den, bestelako diru-laguntzak jasotzen direnean, emandako diru-kopurua doitu ahal izango da, gain-finantzaziorik ez egoteko.

**Quinta.- Compatibilidad con otras subvenciones.**

La subvención concedida es compatible con otras que puedan percibirse para la realización de la misma iniciativa, a excepción de ayudas provenientes de otros departamentos municipales. No obstante, la percepción de otra u otras subvenciones para el mismo fin podrá dar lugar al reajuste de la subvención concedida, con el objeto de evitar la sobrefinanciación.

**Seigarrena.- Proiektuaren azalpen-txostena eta gastuen justifikazioa.**

a) Emandako dirulaguntza 2020ko otsailaren 15a baino lehen zuritu beharko da. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, diruz lagundutako jardueraren aurrekontuaren % 100 justifikatu beharko da, ez Gasteizko Udalak emandakoa bakarrik, eta berariaz adierazi beharko da zein kostu egozten zaion Udalak emandako dirulaguntzari.

Onuradunak justifikatzeko kontua aurkeztu beharko du jasotako dirulaguntza justifikatzeko, ondoren adierazitakoari jarraituz.

b) <u>Justifikazioko kontuak alderdi hauek jaso beharko ditu:</u>

b.1. <u>Egindako proiektuaren azalpen-txostena</u>, lortutako emaitzen balioespena barne.

Dirulaguntza jaso duen jarduera dela eta egindako azterlan, egitarau, argitalpen, kartel eta bestelako agiri grafiko nahiz idatzizkoen ale bana.

b.2. <u>Jardueren kostua justifikatzeko txosten ekonomikoa</u>. Xehetasun hauek jaso beharko ditu:

**1-J eranskina: Eranskin hau beteko da, baldin eta** proiektua edo jarduera zenbait entitate publiko edo pribatuk finantzatzen badute, eta/edo entitate onuradunaren funts propioekin.

**2-J eranskina:** Diruz lagundutako proiektuari dagozkion gastuen egiaztagirien zerrenda.

Eranskin hau beteko da **udal dirulaguntzari egozten zaizkien gastuak** justifikatzeko, gastu-motak zedarritu behar direlarik hartzekoduna, kontzeptua, data eta zenbatekoa adierazita, eranskinean jasotzen denaren arabera. Eranskinari jatorrizko fakturak eta fakturen ordainagiriak atxikiko zaizkio.

Eskudirutan ordaintzeko, aintzat hartu beharko da legez ezarritako mugapena, zein web-orri honetan kontsultatu daitekeen: www.agenciatributaria.es

Egindako jarduerak beste modu batez egiaztatu ezin direnean bakarrik onartuko dira jaso-izanaren agiriak. Jaso-izanaren agiria izenpetzen duen pertsona ezin izango da enpresaburua edo profesionala izan, bestela dagokion faktura egin eta eman beharko bailuke ezinbestean.

Jaso-izanaren agiriak datu hauek bildu behar ditu:

- Jaulkitzailearen eta jasotzailearen izen-

**Sexta.- Memoria explicativa y justificación del gasto.**

a) La entidad beneficiaria deberá justificar la subvención concedida antes del 15 de febrero de 2020. Según establece el artículo 30 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se deberá justificar el 100% del presupuesto de la actividad subvencionada y no sólo la cantidad concedida por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, especificando los gastos cuyo coste se imputa a la subvención concedida por el Ayuntamiento.

En la presentación de esta documentación han de tenerse en cuenta los criterios de normalización de documentos que se recogen en estas bases.

b. <u>La cuenta justificativa deberá contener:</u>

<u>b.1. Memoria explicativa del proyecto realizado</u> con indicación de los resultados obtenidos.

Ejemplar de los estudios, programas, publicaciones, carteles anunciadores y cuanta documentación gráfica y escrita haya sido elaborada en la actividad objeto de la subvención.

<u>b.2 Memoria económica justificativa del coste de las actividades</u>, que deberá contener:

**Anexo 1-J: Se cumplimentará este anexo, en el caso de que** el proyecto o actividad sea financiada por varios entes públicos o privados, y/o con recursos propios de la entidad beneficiaria.

**Anexo 2-J**: Relación de justificantes de gasto relativos al proyecto subvencionado.

Se cumplimentará este anexo para justificar los **gastos del proyecto que se imputan a la subvención municipal,** relacionando los tipos de gastos con identificación del acreedor, concepto, fecha e importe tal y como se recoge en el anexo. Al mismo se adjuntarán las facturas originales y documento que acredite el pago de las mismas.

Para la realización de los pagos en metálico habrá de tenerse en cuenta la limitación legal establecida, que puede consultarse en la siguiente página web: www.agenciatributaria.es

Únicamente se admitirán recibís cuando las actividades realizadas no se puedan acreditar por otro medio. En todo caso, la persona que firme el recibí no ha de tener la condición de empresario o profesional dado que, si así fuera, estaría obligada a expedir y entregar la correspondiente factura.

El recibí deberá contener los siguientes datos:

- Nombre, apellidos, NIF y domicilio de la per-

deiturak, IFZ eta helbidea.

- Eragiketa edo zerbitzuaren deskribapen zehatza, eta prezioa, guztira.
- PFEZaren atxikipena (dagokion zerga agentzian egindako atxikipena sartu izanaren agiria erantsi behar da).
- Tokia, data eta jasotzailearen sinadura.

**3-J eranskina:** Proiektu edo jardueraren dirusarrera eta gastuen balantzea.

**4-J eranskina:** Langile-gastuak eta Gizarte Segurantza.

Eranskin hau beteko da diruz lagundutako proiektuaren langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak justifikatzeko. Horrez gain, dagozkion nominak eta TC agiriak (egun RNT eta RLC izenekoak) atxiki beharko dira

**5-J eranskina:** Erantzukizunpeko aitorpena

Entitate onuradunak adierazpen hauek biltzen dituen eranskina beteko du:

- Aurkezten diren fakturak eta ordainagiriak aurreikusitako helburu edo xedea lortze bidean sortuak direla, eta Gasteizko Udalaren ekarpena baliatu zela horiek finantzatzeko.
- Hala baldin badagokio, elkarteak proiektua gauzatzeko, **soldatapeko langilerik** izan ez duela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.
- Onuradunak diruz lagundutako jarduerari egozten dizkion **zeharkako kostuen** erantzukizunpeko adierazpen, oro har onartzen diren kontabilitate printzipio eta arauei jarraituz, eta kontuan izanik horiei egotzitakoa ezin izango dela inolaz ere dirulaguntzaren %8 a baino gehiago izan.
- Entitate onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena, non diruz lagundutako jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo dirulaguntzak zedarrituko diren**, zenbatekoa eta jatorria** zehaztuta, edo, halakorik badagokio, ez duela bestelako laguntzarik ez eskatu ez eskuratu azaltzeko adierazpena.

**6-J eranskina:** Gastu, dieta eta bidaien banan banako likidazioa.

Eranskin hau beteko da bidaia gastuak, dieta, joan-etorri, ostatu eta abarrekin zerikusia duten gastuak justifikatzeko. Gastu horiei dagozkien merkataritza-agiriak (erabilitako garraiobidearen txartelak, tike-

sona expedidora y destinataria

- Descripción detallada de la operación o servicio realizado y su precio total
- Retención del IRPF (se deberá acompañar ingreso de dicha retención en la Agencia Tributaria correspondiente)
- Lugar, fecha y firma de la persona o entidad receptora.

**Anexo 3-J**: Balance de ingresos y gastos del proyecto/actividad.

**Anexo 4-J:** Gastos de personal y seguridad social.

Se cumplimentará este anexo para justificar los gastos de personal y seguridad social del proyecto subvencionado, adjuntando las nóminas y TCs (actuales RNT y RLC) a cargo de la entidad o persona beneficiaria.

**Anexo 5-J:** Declaración responsable

Se cumplimentará este anexo por la entidad beneficiaria que contiene las siguientes declaraciones:

- Declaración responsable de que las facturas y recibos se generaron como consecuencia de la ejecución del objetivo o fin previsto y han sido financiadas por la aportación del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.
- Declaración responsable de no contar con **personal asalariado** a cargo para el desarrollo del proyecto
- Declaración responsable de **costes indirectos** que la persona o entidad beneficiaria imputa a la actividad subvencionada en la parte que corresponda de acuerdo con los principios y normas de contabilidad generalmente admitidos, sin que la imputación efectiva pueda ser superior al 8 %.
- Declaración responsable de la persona o entidad beneficiaria en la que detalle otras subvenciones o ingresos que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación de **importe y procedencia** o, en su caso, declaración indicando que no ha solicitado ni es perceptora de otras subvenciones para el proyecto.

**Anexo 6-J**: Liquidación individualizada de gastos, dietas y viajes.

Se cumplimentará este anexo para justificar los gastos de viaje y dietas, desplazamientos, manutención etc. Al mismo hay que adjuntar los documentos comerciales justificativos del gasto (billetes del medio de transporte utilizado, tickets,

tak, fakturak...) erantsi egingo dira, zenbatekoa zehazteko oinarri baitira.

facturas...) que son la base para determinar la cuantía.

c) **Kontratu txikien zenbatekoa gainditu arren Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak:**

Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak obra-kontratuen kasuan 39.999 euroko (BEZik gabe) eta hornidura- eta zerbitzu-kontratuenekoan 14.999 eurokoa (BEZik gabe), pertsona edo entitate onuradunak gutxienez hiru hornitzaileri eskatu beharko die eskaintza egiteko, obra egin, zerbitzua eskaini edo ondasunak emateko konpromisoa hartu aurretik, eta hala egin duela egiaztatu beharko du, salbu eta haren ezaugarri bereziak direla eta merkatuan ez badago lan hori egin, zerbitzu horiek eskaini edo ondasun horiek hornitzen dituen aski erakunde, edo dirulaguntza eman aurretik gastua egina badago.

c) **Gastos subvencionables que superen la cuantía de un contrato menor.**

Cuando el importe del gasto subvencionable supere en el contrato de obras la cuantía de 39.999 euros (IVA excluido) y en suministros y servicios la cuantía de 14.999 euros (IVA excluido), la persona o entidad beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contracción del compromiso para la obra, la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por sus especiales características no exista en el mercado suficiente número de entidades que los realicen, presten o suministren, o salvo que el gasto se hubiere realizado con anterioridad a la subvención.

d) **Emandako diru-laguntzaren justifikazio eza edo justifikazio eskasa:**

Justifikatzeko obligazioa ez betetzeak nahiz behar bezala ez justifikatzeak jasotako kopuruak eta dagozkien interesak itzuli beharra ekar lezakete berekin, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

d) **Falta de justificación o justificación insuficiente de la subvención concedida:**

El incumplimiento de la obligación de justificar o la justificación insuficiente podrá conllevar la obligación de reintegrar las cantidades percibidas más el interés correspondiente, en los términos establecidos en el artículo 37.1 de la Ley General de Subvenciones.

**Zazpigarrena.- Diruz lagundu ezin diren gastuak**

Hitzarmen honetan, honako gastu hauek ez dira diruz lagunduko:

- Ondasun inbentariagarriak erosteko, eraikitzeko, birgaitzeko edo hobetzeko gastuen kasuan; Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 31.4 eta 31.5 artikuluak aplikatuko dira.
- Zeharkako zergak, BEZ kasu, ez dira diruz lagunduko, gerora berreskuratzeko edo konpentsatzeko aukera dagoenean.
- Diruz lagundutako jarduera burutzeko guztiz beharrezkoak ez diren gastuak ez dira diruz lagunduko (Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 31. artikuluak hala dio.)

**Séptima.- Gastos no comprendidos.**

No se considerarán gastos subvencionables en el presente convenio:

- Los gastos que supongan la adquisición, construcción, rehabilitación y mejora de bienes inventariables se ajustara a las reglas establecidas en el artículo 31.4 y 31.5 de de la Ley General de Subvenciones
- Los impuestos indirectos, como por ejemplo el IVA, no serán subvencionables cuando sean susceptibles de recuperación o compensación.
- Los gastos no estrictamente necesarios para la realización de la actividad subvencionada (art. 31 de la Ley General de Subvenciones).

**Zortzigarrena.- Azpikontratazioa.**

Hauxe joko da onuradunaren azpikontrataziotzat: beste norbaitekin hitzartzea hark egin dezala dirulaguntzaren xede den jarduera, osorik nahiz parte bat. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da diruz

**Octava.- Subcontratación.**

Se considera que existe subcontratación cuando el beneficiario concierta con terceros la realización total o parcial de la actividad que constituye el objeto de la subvención. No tendrán tal considera-

lagundutako jarduera berak egiteko onuradunak egin beharreko gastuen kontratazioa.

Onuradunak gehienez ere diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 50 azpikontratatu ahal du, hala agintzen baitute Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak (azaroaren 17koak) 29. artikuluan eta hurrengoetan; eta Araudiaren 68. artikuluak.

Kontratazioak merkatuko baldintzetan egin beharko da, Diru-laguntzetarako Lege Orokorrak 29.7 d) artikuluan dioena betez.

Onuradunak du administrazioaren aurrean diruz lagundutako jarduera gauzatzearen erantzukizuna. Kontratistek onuradunari erantzungo diote.

Inolaz ere ezingo da azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua handitzen duelarik ere haren edukiari balio erantsirik ez dakarkion ekintzarik.

ción los gastos que tenga que realizar el beneficiario para la realización por sí mismo de la actividad subvencionada.

El beneficiario podrá subcontratar parcialmente hasta el 50 % de la actividad subvencionada en los términos señalados en el artículo 29 y siguientes de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y art. 68 del Reglamento.

La contratación deberá hacerse de acuerdo con las condiciones normales del mercado, de conformidad con el art. 29.7 d) de la Ley General de Subvenciones.
Los contratistas quedarán obligados sólo ante el beneficiario, que asumirá la total responsabilidad de la ejecución de la actividad subvencionada frente a la Administración.

En ningún caso podrán subcontratarse actividades que, aumentando el coste de la actividad subvencionada, no aporten valor añadido al contenido de la misma.

**Bederatzigarrena.- Dirulaguntza galtzea eta diru-laguntza itzultzea.**

Jasotako diru-kopurua itzuli egin beharko da, dagokion txostena tramitatu ondoren, honako egoera hauetan: a) eskabideko datuak edo eskatutako agiriak faltsutu badira, b) emandako diru-laguntza hitzartutako helburuak eta ekintzak egiteko erabili ez bada , c) ezarritako betebeharrak bete ez badira, d) Honakoetan xedatutako egoeretan: Udal Ordenantzaren 20. artikuluan; azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 36. artikuluan eta bere araudian garatutakoetan (887/2006 ED, uztailaren 21ekoa). Era berean, pertsona edo erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen duen dirukopurua itzuli egin beharko du.

Jasotako diru-kopurua itzularazteko prozedura Gasteizko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantzan, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta bere araudian xedatutakoaren araberakoa izango da.

**Novena.- Pérdida de la subvención y reintegro.**

Procederá el reintegro de las cantidades percibidas, previa tramitación del oportuno expediente, en los siguientes supuestos: a) si se hubiesen falseado los datos de la solicitud y/o de la documentación exigida, b) si no se hubiese destinado la subvención a los fines y actividades para los que fue concedida, c) si se hubieran incumplido las obligaciones establecidas, d) en los demás supuestos establecidos en el artículo 20 de la ordenanza municipal de subvenciones, artículo 36 de la ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y concordantes del Reglamento de la L.G.S. (R..D. 887/2006, de 21 de julio). Así mismo las personas o entidades beneficiarias deberán proceder al reintegro del exceso obtenido sobre el coste de la actividad subvencionada.

El procedimiento de reintegro para la devolución de las cantidades percibidas se ajustará a lo establecido en la Ordenanza Municipal de Subvenciones del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, en la ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en su Reglamento de desarrollo.

**Hamargarrena.- Onuradunaren betebeharrak**

- Diru-laguntza ematea ekarri duen jarduera bideratzea, hitzarmenaren oinarriekin bat etorrita.

- Diru-laguntza jaso duten proiektuen edozein

**Décima.- Obligaciones del beneficiario.**

- Realizar la actividad financiada y aplicar a la misma los fondos percibidos en los términos del convenio de concesión de la subvención.

- Comunicar al Servicio de Euskera del

aldakuntza edo moldaketa egin nahi denean, Euskara Zerbitzuari horren berri ematea.

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz cualquier modificación en la realización de los proyectos.

- Euskara Zerbitzua jakinaren gainean jartzea, jarduera berak finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo eskuratuz gero; beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutik -dela estatukoa, dela Europar Batasunekoa, dela nazioartekoa-. Baliabide horiek zertan erabiliko diren jakinarazi behar zaio Euskara Zerbitzuari. Jakin bezain laster eman beharko da horren berri.

- Comunicar al Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de otras administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales, y la aplicación dada a los anteriores. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca.

- Hitzarmen honen baitan jasoko duen diru-kopurua jaso aurretik zerga-betebeharrak bete direla eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordaindu zaizkiola Euskara Zerbitzuaren aurrean egiaztatzea. Baita Udalarekin zerga-betebeharrak bete direla egiaztatzea ere.

- Acreditar ante el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz que se haya al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la seguridad social, así como con sus obligaciones con la hacienda municipal, con anterioridad al abono del importe objeto de este convenio.

- Hitzarmena bete ez bada, edo bertan hitzartutako proiektuak burutu ez badira, dirua itzultzea. Baita diru-soberakina itzultzea ere, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen duten baliabideak eskuratu badira.

- Proceder al reintegro de las cantidades percibidas, en los supuestos de, incumplimiento o imposibilidad de cumplimiento de los proyectos o actividades objeto del convenio en las condiciones establecidas, o del exceso obtenido sobre el coste de la actividad subvencionada.

- Diruz lagundutako proiektuen jarraipen egokia egiteko behar diren agiriak aurkeztea, Udalak hala eskatzen badu.

- Dar cuenta al Ayuntamiento de los documentos que se le soliciten como seguimiento del proyecto subvencionado.

- Dokumentazioa egiaztatzeko eta finantza kontrola egiteko, Udaleko Kontuhartzailetza Nagusiak ezarritako jardunbideak betetzea, baita Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren nahiz eskumen hori duten bestelako erakundeen legediak aurre-ikusitakoa ere.

- Someterse a las actuaciones de comprobación de documentación y a las de control financiero que corresponde a la Intervención General del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y a los previstos en la legislación del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas y otros órganos que tengan atribuida dicha competencia.

- Diru-laguntza zuritzea, honako hitzarmen honetako seigarren eta zazpigarren puntuetan ezarritakoarekin bat etorriz.

- Llevar a cabo la justificación de la subvención de acuerdo a lo establecido en las cláusulas sexta y séptima del presente convenio.

**Hamaikagarrena.- Gasteizko Udalaren ekarpena eta hobariak**

Beharrezkoa denean, Euskara Zerbitzua GEU elkartearekin batera arituko da egitasmoen kudeaketan, edo egitasmoak hobetzeko proposatzen diren eginkizunetan.

Jarduerak antolatzeko, Udalaren ekipamenduak erabili ahal izango dira. Horrelakoetan, kasu bakoitzari dagokion hobaria eman ahal izango da tasetan, edo ordaintzetik salbuetsi, ekipamendu bakoitzaren arau espezifikoak hori baimentzen duenean.

**Undécima.- Aportación del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y bonificaciones.**

Siempre que sea necesario, el Servicio de Euskera y la asociación GEU colaborarán en la gestión de estos programas, o en tareas concretas que pretendan la mejora de los mismos.

Para el desarrollo de estos programas se podrá disponer de equipamientos o espacios municipales. En esos casos, se podrá acordar la bonificación correspondiente en las tasas, o la exención, cuando la normativa específica de cada equipa-

Hala ere, eskatutako kanpo-zerbitzuak ordaindu beharko dituzte onuradunek, eta behartuta egongo dira soinuzko nahiz ikusteko publizitatean Gasteizko Udalaren babesaren berri eman edo haren logotipoa agertzera.

miento lo permita. La asociación deberá sin embargo abonar aquellos servicios que haya de contratar de manera externa, y deberá hacer constar en la publicidad (visual o sonora) que dicha actividad esta patrocinada por el Ayuntamiento, incluyendo para ello la marca del mismo.

GEU elkartearen bestelako jarduerek, hitzarmen honetan aurreikusi gabekoek, Udalaren jabetza publikoko ondasunak pribatiboki erabiltzearen edo haien baliatze bereziaren tasak arautzen dituen ordenantzak aurreikusten dituen onurak jaso ahal izango dituzte (7.11. epigrafea, 4 bis artikulua 5), Gasteizen Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren helburuekin eta lan-ildoekin bat badatoz, Elkarteak eskatu ondoren, eta proposamen arrazoitua txosten batean jaso ondoren, eskumena duen organoak tasa salbuestea onartu dezake.

Las actividades de la asociación GEU no previstas en este convenio y que sean conformes a los objetivos y líneas de trabajo del Plan de Acción para la Promoción del Uso del Euskera, podrán acogerse a lo dispuesto en la Ordenanza Reguladora de las tasas por utilización privativa o aprovechamiento especial de los bienes de dominio público (epígrafe 7.11, artículo 4 bis. 5) y por lo tanto, previa solicitud e informe-propuesta motivado, se podrá conceder la exención de la tasa por disposición del órgano competente.

**Hamabigarrena.- Hitzarmenaren iraunaldia**

Hitzarmena 2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra egongo da indarrean. Epemuga iritsi baino lehenago hitzarmen berri bat sinatzeko elkarrizketa hasi daiteke.

**Decimosegunda.- Vigencia del convenio**

El presente convenio surtirá sus efectos desde el 1 de enero al 31 de diciembre de 2019. Antes del final del mismo, se pueden iniciar las conversaciones para la firma de un nuevo convenio.

**Hamahirugarrena.- Hitzarmenaren jarraipena**

Hitzarmenaren jarraipena egiteko eta alde bietatik sor daitezkeen hobekuntza-proposamenak aurrera eramateko, jarraipen batzordea osatuko dute honako hauek, gutxienez: elkartearen ordezkari batek eta Euskara Zerbitzuko ordezkari batek.

Jarraipen batzordea urtean bitan elkartuko da gutxienez, hitzarmen honen baitan jaso diren lanen garapena aztertzeko eta balizko hobekuntzak proposatzeko.

**Decimotercera.- Seguimiento del convenio.**

Para el seguimiento del convenio y de cara a hacer efectivas las posibles propuestas de mejora que pudieran surgir de ambas partes, se conformará una comisión de seguimiento en la que participarán al menos una representante de la asociación y una persona del Servicio de Euskera.

La comisión de seguimiento se reunirá al menos dos veces al año, para examinar el grado de desarrollo de las tareas recogidas en este convenio y para proponer cualquier tipo de mejora si así corresponde.

**Hamalaugarrena.- Deusezteko arrazoiak**

Hitzarmena deusezteko arrazoia da bertan agertzen diren hitzarkinak edota hitzarmenaren izaerarekin zerikusirik duen beste edozein klausula ez betetzea.

**Decimocuarta.- Causas de resolución**

Son causas de resolución para las partes firmantes del presente convenio, el incumplimiento de las cláusulas contenidas en el mismo así como de cualquier otra derivada de su específica naturaleza.

**Hamabosgarrena.- Hitzarmenaren izaera eta interpretatzea.**

Hitzarmen honek administrazio-izaera du. Interpretazioa eta gauzatze bera zuzenbide administratiboak arautzen ditu.

Hitzarmen hau ulertzean, aldatzean, betetzean edo

**Decimoquinta.- Naturaleza e interpretación.**

El presente convenio tiene naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el derecho administrativo.

Las cuestiones litigiosas a que pueda dar lugar la

deusezterakoan sor litezkeen auziak, administrazio-bidea bukatu ondoren, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ezagutzaren eta ebazpenaren eraginpean geratuko dira.

interpretación, modificación, efectos o resolución del mismo serán de conocimiento de la jurisdicción contencioso-administrativa.

Oinarri hauek aurreikusi gabekoetan, Vitoria-Gasteizko Udalaren Diru-laguntzak eta Laguntzak arautzeko udal Ordenantza hartuko da kontuan, baita azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta bere araudia, zein uztailaren 21eko 887/2006 ED bidez onetsia baita, eta aplikagarri diren gainerako arauetan xedatutakoa.

Será de aplicación en todo aquello que no hubiera sido contemplado en las presentes estipulaciones, la Ordenanza municipal de Subvenciones y Ayudas del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, así como la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su Reglamento, aprobado por RD 887/2006, de 21 de julio, así como demás normativa concordante y de pertinente aplicación.

Azaldutako guztia onartu eta fede ona erakusten dutenez, bi aldeek hitzarmen hau izenpetzen dute.

En prueba de conformidad y aceptación de cuanto queda expresado, las partes intervinientes firman el presente convenio.

Gasteizen, 2019ko apirilaren 1ean

En Vitoria-Gasteiz, 1 de abril de 2019

Vitoria-Gasteizko Udalaren izenean
Por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

Iñaki Prusilla Muñoz

Por la asociación GEU
GEU elkartearen izenean

Irati Iciar Madinabeitia

## ERANSKINA

Euskara Zerbitzuak eta GEU elkarteak hitzartutako egitasmoak ebaluatu dituzte, eta aurtengo helburuak eta erronkak identifikatu dituzte, alde bien arteko lankidetza horien araberakoa izango baita.

### MINTZALAGUNA

- Gasteizko euskalgintza osatzen duten eragile guztien babesa du Gasteizko Mintzalaguna proiektuak. Eragile hauek guztiek komunikazio eta matrikulazio kanpainan parte hartzen dute eta euren eragin esparruan kokatzen diren euskaldunak Mintzalagunera bideratzen dituzte. Elkarlanean garatzen den proiektua dela islatu behar da, eta izaera kolaboratiboa sakondu
- Kolektibo eta entitate jakinekin lan egitea, programaren inguruan. Bereziki, euskara normalizatzeko programak dituzten entitateekin lan egitea da interesgarria: administrazioa, enpresa eta elkarteak.
- Jardueren osagarrien inguruan lan egiten jarraitzea, programa erakargarria eta aberasgarria izateko, bai ikuspegi linguistiko batetik bai bizipenen ikuspegitik. Arrakastatsuak izan diren jardueretatik abiatu, egitarau osoaren kalitatea hobetze aldera.
- Parte hartzaile kopurua handitzea, aurreko urteetako zenbakietara iristeko. Euskaraldiaren bultzada erabiltzea komeni da, bertan "belarri-prest" izan direnak programara erakartzea.

### IGANDEAK JAI ETA FAMILIA-AISIALDIRAKO JARDUERAK

- Helburuetan sakontzea: alegia, aisialdi programa bat izatea, familiaren hizkuntza ohituretan eragiteko bokazioa duena, eta mintzapraktikarako espazioak eskaintzea, horrelakorik behar duten gurasoei. Jolasak, lantegiak eta antolatzen diren dinamikak helburu horren zerbitzuan dauden tresnak dira. Programa hezkuntza ez formalaren esparruan kokatzen da, eta euskara aisialdiarekin, balore positibo eta gustagarriekin lotzeko aukera ematen du.
- Alde horretatik xede-taldeari erreparatzea eta gurasoen profila kontuan hartzea. Euskara aritzeko behar beste ohiturarik ez duten gurasoak erakartzea interesatzen zaigu bereziki. Garrantzitsua da oreka bat bilatzea: batetik euskaraz naturaltasun osoz aritzen diren familiak izatea eta bestetik bide hori jorratzen ari diren familiak
- Familien eta guraso elkarteen sare bat osatzen jarraitzea, seme-alabak euskaraz sozializatzeko, belaunez-belaun transmisioa emateko eta familian euskaraz bizitzeko desioaren eta kezkaren inguruan.
- Datuak sexuaren arabera jasotzeko beharra azpimarratzea, nahiz eta horretarako batzuetan estimazioak erabili behar.
- Euskarazko antzezlan, ikuskizun, lantegi eta antzekoak bultzatzea, kalitatezko kultura eskaintza sustatuz.

### EUSKARALDIA

- Euskaraldiaren ebaluazioa eta jarraipena zein hurrengo pausoak emateari begira, jarraipen batzorde zabal bat antolatzea eta koordinatzea.
- Lurralde historikoko gainontzeko talde eta erakundeekin gutxieneko koordinazioa bermatzea. Baita beste lurraldeetakoekin ere bai. Horretarako sortzen diren batzorde edota egituretan parte hartzea.

- Proposamen adostua lantzea, Udalarekin zein gizarte eragileekin, Euskaraldia Gasteizen antolatzeko bai 2019. urtean bai 2020an.

**BESTELAKOAK**

Genero ikuspegia:

- Ahalegin berezia egin behar dugu, hitzarmenean bildu ditugun proiektuetan genero ikuspegia txertatzeko. Hasteko eta behin, programa hauek kudeatzeko edota ebaluatzeko biltzen diren datu guztiak, sexuaren arabera bereizita bilduko dira. Alde horretatik garrantzia berezia dute euskararen familia bidezko transmisioarekin edo sozializazioarekin zerikusiri dutenak

Baliabideak:

- Euskara Zerbitzuarekin batera proiektu bakoitzaren dimentsioa lantzea, eta proiektuetako bakoitzean erabiliko diren baliabideak zehaztea.

Datuen babesa:

- Geu elkarteak Udaletik eskuratzen dituen datuak hitzartutako zerbitzua emateko erabiliko ditu soil-soilik. Zerbitzua bertan behera geratzen den unean Geu elkarteak Udaletik jasotako datuak suntsituko ditu edo Udalari itzuliko dizkio informazio horiek dituzten euskarriak.
- Datuei ezin izango zaie bestelako tratamendurik eman, hitzarmen honetan aurreikusten ez dena.
- Hitzartutakoarekin bat ez datozen datu-tratamenduak, GEU elkartearen erantzukizunekoak izango dira, eta berak erantzun beharko du sor litezkeen kalteengatik bai gainontzekoen aurrean bai eta Udalaren beraren aurrean ere.
- Geu elkarteak adierazten du norberaren datuen babeserako indarrean diren arauak beteko dituela, batez ere horrelako datuak jasotzen dituzten fitxategien segurtasunari dagokien guztian.
- Hitzartutakoarekin bat ez datozen datu-tratamenduak, GEU elkartearen erantzukizunekoak izango dira, eta berak erantzun beharko du sor litezkeen kalteengatik bai gainontzekoen aurrean bai eta Udalaren beraren aurrean ere.
- Geu elkarteak bere gain hartzen du datuak ez lagatzeko konpromisoa.

## ANEXO

El Servicio de Euskera y la asociación GEU han evaluado los programas objetos del convenio y han identificado objetivos y retos para el año 2019, que deberán ser las bases del trabajo a desarrollar en colaboración entre ambas entidades.

### MINTZALAGUNA

- Es un programa impulsado y apoyado por la totalidad de las entidades sociales del euskera. Estas entidades contribuyen a la comunicación del programa y a la inscripción en el mismo, difundiendo el programa dentro de su ámbito de actuación. Se considera necesario dar a conocer que es un programa común a todas esas entidades y reforzar su carácter colaborativo.
- Se quieren crear lazos de colaboración con colectivos y entidades específicos para colaborar en torno al programa. Ver posibilidades de colaborar con entidades que tienen planes de normalización lingüística: administración, empresas y asociaciones.
- Se quiere seguir trabajando en un programa de actividades atractivo y enriquecedor desde un punto de vista tanto lingüístico como vivencial. Seleccionar las actividades más exitosas y trabajar para mejorar la calidad de todo el programa.
- Se quiere incrementar el número de participantes en el programa para llegar por lo menos a las cantidades de años anteriores. Se considera oportuno usar el impacto de Euskaraldia para atraer a actividades de práctica lingüística a todas aquellas personas que se han auto-identificado como belarri-prest.

### IGANDEAK JAI y OCIO FAMILIAR EN EUSKERA

- Profundizar en los objetivos: queremos que sea un programa de ocio, con vocación de incidir en los hábitos lingüísticos de la familia, y ofertar espacios de uso de de práctica lingüística para los padres y madres que lo necesitan. Los juegos, los talleres y el resto de dinámicas son meros instrumentos al servicio de estos objetivos. Es un programa que se nutre de los planteamientos de la educación no formal, y posibilita relacionar la lengua con el ocio, con valores positivos y con experiencias placenteras.
- Atender a los públicos objetivos y al perfil de las familias. Nos parece interesante atraer a familias que no tengan suficiente costumbre de comunicarse en euskara y perseguir el equilibrio: familias que se comunican en euskara con fluidez y naturalidad y otras que están en ese proceso.
- Seguir trabajando con el objetivo de crear red con asociaciones de padres y madres y con familias, en torno al deseo de trabajar la socialización lingüística y el uso del euskera en la familia.
- Organizar, en ese contexto, espectáculos, actuaciones, talleres y demás; impulsando una oferta cultural de calidad.

### EUSKARALDIA

- Organizar y coordinar una comisión de seguimiento del proyecto Euskaraldia, para realizar tareas de evaluación de la iniciativa de 2018 y para dar los pasos necesarios para poner en marcha la siguiente edición.
- Garantizar y promover la coordinación con los grupos y entidades que trabajan en este sentido en el territorio histórico de Álava y en el resto de territorios. Tomar parte en las comisiones o estructuras que se puedan organizar para ello.

- Elaborar una propuesta de trabajo para los años 2019 y 2020, consensuada con el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y con los agentes sociales del mundo del euskera.

**Otros**

Perspectiva de género:

- Hacer un esfuerzo por incorporar la perspectiva de género a los programas objeto del convenio. En ese sentido, conviene recordar que todos los datos que se vayan recopilando para la gestión y evaluación del programa, deben estar desagregados por sexo, especialmente en temas relacionados con la socialización y transmisión del euskara en la familia.

Recursos:

- En colaboración con el Servicio de Euskara revisar la dimensión de cada uno de los proyectos y la distribución de los recursos que se destinan en el presente convenio

Tratamiento de los datos

- La asociación GEU se compromete a tratar los datos con la finalidad exclusiva de la realización del servicio arriba descrito. Una vez realizada la prestación del servicio, la asociación se compromete a destruir los datos proporcionados por el Ayuntamiento Vitoria-Gasteiz o en su caso a devolver al Ayuntamiento los soportes donde se halle recogida la información.
- Los Datos no podrán ser objeto de ningún tratamiento distinto a los previstos en este convenio.
- Cualquier tratamiento de los Datos que no se ajuste a lo dispuesto en el presente acuerdo, será responsabilidad exclusiva de GEU frente a terceros y frente a la Ayto. de Vitoria-Gasteiz, ante el que responderá por los daños y perjuicios que le hubiere podido causar.
- La asociación GEU manifiesta cumplir con la normativa vigente en materia de protección de datos de carácter personal y en particular con las medidas de seguridad correspondientes a sus ficheros.
- El incumplimiento de este compromiso será responsabilidad exclusiva de la asociación GEU que responderá frente a terceros y frente al propio Ayto. de Vitoria-Gasteiz de los daños y perjuicios que pudieran generarse.
- La asociación se compromete a no realizar ninguna cesión de los datos.